



GOIZUETA
GOIZUETA

GOIZUETA

(Neskatiko-mutikoak txiste kontari)

– Behin eroetxetik eskapatzen dia bi ero, lixtoa eta tontoa, ta iyotzen dia tellatu baten gañera. Ta, lixtok ze itten do?, e... muittu tella. Ta atetzen da guardia ta esaten do: «zein dabilla hor?» Ta: «miau!», ta barrenera sartzen da. Berriz e tontok itten do tella muittu, ta atetzen da kanpora ta: «zein dabilla hor?» Ta tontok: «beste katua».

– Eroetxetik bi ero eskapatzen dia ta goartzibillak atzen dittuzte, ta bat iyotzen da arbolaan gañera ta bestea, berriz, bueltaka hasten da, ta goikok esaten dio: «motel harraptuko itek!» Eta: «bai, oaindikan hoge bueltan benta-ja badit behintzat ta...»

– Bat eroetxetik eskapatzen da ta eunero dendan erosten tziiton periodiku guztiek. Ta, dendakok galtzen dio: «zertako erosten ttizo?» Ta: «harraptu nauten kusteko».

– Sumarinista bat bai omen dio Saharako desertutik ta galdetzen dio moro bateri: «non da ura?», -«milla kilometrotara». -«Jo, pues hau ondartzia haundia da!»

– Infiernun topatzen dia euskaldun bat, ingles bat ta frantzes bat ta demoniok esate ite, pues, botzeko zerbaitte, gauzan bat, ta berak arraptzen baldin badu gauza hura, infiernun geldittuko diala ta ez baldin badu harraptzen zerura yoin diala. Ta frantzesak botzen do orratza, ta demoniok itten do harrapatu. Ta gero inglesak botzen do hariya ta baita ere harraptu itten do. Ta euskaldunak: «nik ze botako it oaiñ?», ta puzkerra eskapatu, ta: «hori eztuk harraptuko, ez!»

– Leku baten elkartzen dia frantzes bat, ingles bat, japonese bat ta euskalduna. Ta frantzesak esaten do: «guk diu mundun den torreik haundina». Ta japoneseak: «bai, nik hori hanka azpitik iragotzen dit». Ta, gero, inglesak esaten do: «guk diu, berriz, mundun den estatuaik haundina». Ta : «bai, hori ere hanka azpitik iragotzen dit». Ta euskaldunak: «bai, guk diu mundun den osiñik haundina, hori eztuk iragoko ez hanka azpitik».

– Behin euskalduna, frantzesa ta inglesa elkartu zian ta frantzesak san tzon: «gure herrin badao eskopeta bat hamar kilometron titzen duna». Proatu ta, beretzi kilometron, gutxi gora behera... Inglesak esan tzuen: «gure herrin

esan tzin: «mesedez altxatuko al diazu?» (sic). Ta: «ez, esan tzu lurreko gauzak eztiela hartu bar».

– Behin Jaimitori esan tziten eskolan biharko hiru kanta kartzeko. Ta amonangana yoan ta: «amona!, san kanta bat». Ta: «eztut gogorikan, eztut gogorikan». Attangana yoan ta: «atta!, san kanta bat». Ta: «Jiman, Jiman». Aman-gana yoan ta: «ama!, esan kanta bat». Ta: «eztut dirurikan, eztut dirurikan». Ta maisungana yoan ta: «Jaimito!, esan kanta bat». Ta: «eztut gogorikan, eztut gogorikan». «Nor zara zu niri sateko hori?» Ta: «Jiman, Jiman». «Pagatuko diazu!» Ta: «eztut dirurikan, eztut dirurikan».

GOIZUETA

(Neskatiko-mutikoak txiste kontari)

– Behin eroetxetik eskapatzen dira bi ero, listoa eta tontoa, eta igotzen dira teilatu baten gainera. Eta, listoak zer egiten du?, e... mugitu teila. Eta ateratzen da guardia eta esaten du: «zein dabil hor?» Eta: «miau!», eta barrenera sartzen da. Berriz ere tontoak egiten du teila mugitu, eta ateratzen da kanpora eta: «zein dabil hor?» Eta tontoak: «beste katua».

– Eroetxetik bi ero eskapatzen dira eta goardia zibilak atzean dituzte, eta bat igotzen da arbolaren gainera eta bestea, berriz, bueltaka hasten da, eta goikoak esaten dio: «motel, harrapatuko ditek!» (sic) Eta: «bai, oraindik hogei bueltaren bentaja badiat behintzat eta...»

– Bat eroetxetik eskapatzen da, eta egunero dendan erosten zituen periodiko guztiak. Eta, dendakoak galdetzen dio: «zertako erosten dituzu?» Eta: «harrapatu nauten ikusteko».

– Submarinista bat ba omen doa Saharako desertutik eta galdetzen dio moro bati: «non da ura?», –«mila kilometrotara». –«Jo, pues, hau hondartza handia da!»

– Infernuan topatzen dira euskaldun bat, ingles bat eta frantses bat, eta demonioak esaten die, pues, botatzeko zerbait ere, gauzaren bat, eta berak harrapatzen baldin badu gauza hura, infernuan geldituko direla, eta ez baldin badu harrapatzen zerura joanen direla. Eta frantsesak botatzen du orratza, eta demonioak egiten du harrapatu. Eta gero inglesak botatzen du haria eta baita ere, harrapatu egiten du. Eta euskaldunak: «nik zer botako diat orain?», ta puzkerra eskapatu, eta: «hori ez duk harrapatuko, ez!»

– Leku batean elkartzen dira frantses bat, ingles bat, japonese bat eta euskalduna. Eta frantsesak esaten du: «guk diagu munduan den dorrerik handiena». Eta japonesak: «bai, hori nik hanka azpitik iragotzen ¹ diat». Eta gero inglesak esaten du: «guk diagu, berriz, munduan den estatuarik handiena». Eta: «bai, hori ere hanka azpitik iragotzen diat». Eta euskaldunak: «bai, guk diagu munduan den osinik ² handiena, hori ez duk ez iragoko hanka azpitik».

– Behin euskalduna, frantsesa eta inglesa elkartu ziren eta frantsesak esan zuen: «gure herrian badago eskopeta bat hamar kilometrotan tiratzen duena». Probatu eta, bederatzi kilometrotan gutxi gorabehera... Inglesak esan

(1) Iragan; pasatu.

(2) Asun; hasuin.

zuen: «gure herrian bada abioi bat ehun metrotan aterratzen dena». Probatu zuten eta, ehun eta hogeitaz metrotan, gutxi gorabehera... Euskaldunak esan zuen: «gure herrian zilborretik egiten dute pixa, gutxi gora behera...»

Frantses bat, ingeles bat eta euskaldun bat joan ziren printzesa batekin ezkontzera, eta erregeak esan zuen: «hemen salto handiago egiten duena, ez dena hiltzen, harekin ezkonduko da». Eta inglesa saltatu zen, eta plaf!, tortila egin zen. Frantsesa saltatu zen eta tortila egin zen. Eta euskalduna saltatu zen eta ez zen tortila egin. Eta erregeak esan zion: «zertako ez zara egin tortila?» Eta: «arraultzak goian utzi ditut eta...»

– Fernandori eta, etorri zitzaien andereño berri bat eta zeukan gona motz-motz bat eta horrelako batean bazegoen leiharen ondotik zuzendaria. Eta horrelako batean hasi ziren denak gonari begira. Eta gero errekreoa ailegatu zen eta esan zuen zuzendariak: «aber Pedro!, etorri zu honera». Eta: «zer ikusi diozu zuk andereñoari?» Eta: «nik deus ere». Eta: «esateko egia, gaine-rakoan etxera joanen zarela, eh?» Eta: «bueno, horrela, hankak piska bat». Eta: «bueno, egun bateko etxera». Eta gero beste bati deitu zion eta: «zuk zer ikusi diozu?» Eta: «deus ere». Eta: «esateko egia, eh?» Eta: «izterra piska bat». Eta: «bueno, hilabete bateko etxera». Eta Fernandori esan zion: «Fernando!, etorri, zuk zer ikusi diozu?». Eta: «adio, lagunak!, hurrengo urtera arte!»

– Eskapatzen dira bi ero eroetxetik, eta bat listoa ta bestea tontoa. Eta egiten da listoa kontenedore basura horietako batean sartu, eta tontoa ere patata zaku batean. Eta orduan kontenedorean jotzen du poliziak, eta propio listoak: «tonnn!» Eta jotzen du zaku patatan eta tontoak: «patatonn!»

– Behin, gizon bat joaten zen barrera egunero, eta hartzen zituen bi baso ardoarenak. Eta barreko gizonak galdetu zion: «zertako hartzen dituzu bi?» Eta: «bat nere partez eta bestea nere lagun kartzeleroaren³ partez». Eta handik aurrera hasi zen bat hartzen. Eta: «zertako hartzen duzu bat?» Eta: «medikuak ardoa edaten galerazi dit eta nere lagunaren partez bakarra hartzen dut».

– Maestro bat etortzen da eskola berri batera eta jakin nahi ditu hango mutikoen izenak. Eta orduan hasten da eta: «zuk nola izena duzu?» Eta: «Bartolo». Eta esaten dio: «Bartolo ez, Bartolome». Eta: «zuk nola izena duzu?» Eta: «Juanme». Eta: «Juanme ez, Juan». Eta azkenengoak galdetzen dio: «me-kin edo me gabe?» Eta: «me gabe». Eta orduan: «Koxx».

– Behin, mutiko bat omen zegoen bere amonarekin pasean eta lurrean ikusi omen zuen laranja azal bat eta amonak esan zion, hasi omen zen mutikoa hartzen, eta amonak esan zion: «ez, lurreko gauzak ez dira hartu behar». Eta aurreraxeago joan eta platan azal bat, eta hasi zen hartzen eta amonak esan zion ez hartzeko. Eta hurrena aurreraxeago joan eta amona

(3) Preso; gatibu.

erori zen eta amonak esan zion: «mesedez altxatuko al didazu?» (sic) Eta: «ez, esan duzu lurreko gauzak ez direla hartu behar».

– Behin Jaimitori esan zioten eskolan biharko hiru kanta ekartzeko. Eta amonarengana joan eta: «amona!, esan kanta bat». Eta: «ez dut gogorikan, ez dut gogorikan». Aitarengana joan eta «aita!, esan kanta bat». Eta: «Jiman, Jiman». Amarengana joan eta: «ama!, esan kanta bat». Eta: «ez dut dirurikan, ez dut dirurikan». Eta maisuarengana joan eta: «Jaimito!, esan kanta bat». Eta: «ez dut gogorikan, ez dut gogorikan». «Nor zara zu niri esateko hori?» Eta: «Jiman, Jiman». «Pagatuko didazu!» Eta: «ez dut dirurikan, ez dut dirurikan».